

Proiektua: PIASPE Zentral Eolikoa.

Erreferentzia: "Jendaurreko informazioa. Espedientea: 20-GE-Y-2022-00010"

Eskatzailea: DESARROLLOS RENOVABLES IBERIA PI S.L.U.

Industria Administrazioaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritari (Easo kalea 10, 20006 Donostia)

(Izen abizenak) adinez heldua,
NAN zenbakia eta helbidea
duena jakinarazpenetarako, herrian, PK , erakunde horren
aurrean agertzen da, eta zuzenbidean bidezkoena den aldetik,

ADIERAZTEN DU:

2024ko urtarrilaren 24ean EHAAn argitaratu da Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailaren iragarkia, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita "PIASPE" 33 MW-ko zentral eolikoaren **Oinarrizko Proiektua eta Ingurumen Inpaktuaren Azterlana (IIA)**, eta 30 eguneko epea irekitzen da jendaurreko informaziorako eta alegazioetarako. Idazki honen bidez, honako hauek egiten ditut, garaiz eta behar bezala.

ALEGAZIOAK:

Auzotar, herritar nahiz landa lurrei kalte larriak

PIASPE zentral eoliko proiektua **erabat neurrigabea** da ezarri nahi den eremurako eta Azpeitiko **Odria eta Lasao** auzoak, Errezilgo **Txillarramendi-Etumeta** auzoa eta Zestoako **Akua** bailaretan **kalte konponezinak** eragingo lituzke.

Aerosorgailuak bizilekuetatik distantzia jasanezinetara ezartzea aurreikusten da: Odriako eta Txillarramendi-Etumeta auzoetako **16 baserritatik 750 metro** baino gutxiagora, eta **bi baserritatik 500 metro baino gertuago**; gertuena **340 metrotara**; **Akua** bailaran zehar aurreikusten den **bideak**, bailara hori suntsitzeaz gain, beste hamarnaka baserri eta **nekazaritzarako lur baliotsu larriki kaltetuko** lituzke. Ondorioz, eremu guzti horretako **bizilagunen osasuna eta ongizatea** (zarata, *flickering* efektuko itzalak, intrusio bisual ikaragarria, etab.) **arriskuan** jarriko lituzke.

Bestalde, proiektuak okupatzea aurreikusten dituen lurak **abeltzaintza nahiz nekazaritzarako lur oso baliotsuak** dira. Euren **bizibidea** lur horietan oinarritzen duten **baserritarren etorkizuna zalantzan** jarriko litzateke.

Horrez gain, PIASPE proiektuak **ezabatu** egingo luke Azpeitia-Zarautz eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partzialean **Paisaia Interes Bereziko Eremu** gisa izendatuta dagoen **Sañu-Etumeta**, eta eragindako udalerrietako biztanle askoren **aisialdirako gune** esanguratsu eta erreferentziazkoa dena **erabat desitxuratuko** luke: **aparteko begiratokia, mendi-ibilbideak, GRak eta Inaziotar Bidea**, besteak beste.

Bai auzotarrek bai Azpeitia, Zestoa eta Errezilgo biztanleen zati handi batek proiektu honekiko beren **aurkakotasuna ozen adierazi dute**.

Natur ondarearen suntsiketa berreskurazina

Piaspe zentral eolikoa eraikitzeak **Arauntza-Sañu-Etumeta mendigaina suntsituko luke**. Gainera, 3 kilometroren barruan dauden **Natura 2000 sareko** eta babes berezia duten **Izarraitz, Hernio-Gazume eta Pagoetako parke naturalaren erdian** kokatzen denez, babestutako hiru espazio horien epe luzerako bideragarritasuna kolokan jarriko luke, konektibitate ekologikoa hautsiz. Hain zuzen ere, **Arauntza-Sañu-Etumeta mendigaina** babestutako hiru eremu horien arteko **korridore ekologiko** gisa izendatuta dago, eta hala jasotzen da lurralde-antolaketa arau eta tresna guztietan (udalerrietako HAPOetan, Lurralde Plan Partzialetan, Lurralde Plan Sektorialetan nahiz Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan). Statkraften Ingurumen Inpaktuen Azterlanak ez du aztertzen PIASPE proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sareari eragingo lizkiekeen ondorioen nolakotasuna.

92/43/CEE Habitat zuzentarauak Europa mailan babestu beharreko habitaten zerrenda definitzen du. IIA honek ez ditu aztertu ere egin Europa mailan babestuta dauden eta Arauntza-Saño-Etumeta eremuan dauden interes komunitarioko eta lehentasunezko habitaten gehiengoa.

Faunari dagokionez, proiektuak **hegazti eta kiropteroengan eragingo** lituzkeen kalteak **ez daude behar bezala aztertuta**. Hegaztien kasuan, jakina da PIASPE proiektuaren kokalekuaren inguruetan **miru gorriaren** hiru bikotek eta **sai zuriaren** bi bikotek txitatzen dutela, eta hala jasotzen du enpresaren azterlanak ere. Gainera, aerosorgailuak ezarriko liratekeen **Arauntza-Saño-Etumeta mendigaina bi espezie hauen ohiko bazkaleku** kontsideratzen da, eta, azterlanean onartzen den moduan, udazkeneko migrazio-bideak bete-betean zeharkatzen du proiektu honetan ezarri nahi den aerosorgailuen lerroa. Proiektu honi bide ematen bazaio, **ez dago neurri prebentibo edo zuzentzailerik aurreikusi daitekeen hegaztien sarraskia ekidindo denik**.

Horri gehitu behar zaio, Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planaren arabera, **ugatza** eta **sai zuriarentzat** eremu kritikoetatik 10 km-ko distantzian zentral eolikoak ezartzea ekidin behar dela. PIASPE proiektuak **ez du irizpide hori aintzat hartzen**.

Saguzarrei dagokionez, enpresak egindako Ingurumen Inpaktu Azterlanean **12 espezie** (17 bibliografiaren arabera) detektatu dira: horietatik **7 interes berezikoak**, **3 kalteberak** eta espezie **1 galtzeko arriskuan dagoena**. Enpresak egiten duen balorazioa eta proposatzen dituen neurri zuzentzaileak iraingarriak dira, esaterako, **saguzarren habitatak ezabatzea** (hau da, basoak moztea) aerosorgailuetatik aldendu daitezen.

IIAren metodologia ezegokia da hasieratik, eta bertan azaltzen diren ikerketa konkretuen (kiroptero eta hegaztien gaineko eraginaren azterlana, landaretzaren eta habitat babestuen gaineko eraginaren azterlana) laginketa esfortzua txikiegia da proiektuak ondare naturalean izan ditzakeen kalteak behar bezala detektatu eta ebaluatzeko. Hasteko, **mota honetako azterlanek, gutxienez 10 km-ko erradioa duen eremu bat aztertu** behar dute, eta hegazti handien habiak edota babestutako eremuak badaude, erradio honek zabalagoa izan behar du. Statkraftek egindako Ingurumen Inpaktuaren Azterlanak ez du abiapuntuko baldintza hori betetzen. Gainera, hegaztien azterlanaren kasuan, **analisiak behar bezala egiteko baino 6 aldiz baxuagoa da azterlan honek erabili duen laginketa esfortzua**.

Planifikaziorik eza

Piaspe proiektuak ez dio EAE mailako energia berriztagarrien hedapenerako eta ingurumenaren babeserako inongo **planeamenduri erantzuten**, ez baitago gaur-gaurkoz halakorik onartuta. Are gehiago, tramitean den eta hasieraz onartu den Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialean ez litzateke eskala horretako (eskala handia, 30 MWeko potentzia baino gehiago) zentral eolikorik eraikitzea baimenduko Arauntza-Saño-Etumeta mendigainean. Beraz, **Piaspe proiektuak ez dauka tokirik**, hain zuzen ere, eskala horretako azpiegituren hedapena arautuko lukeen **lurralde planeamenduan**.

Horrez gain, **Piaspe** proiektua **ez da bateragarria** ukitzen dituen **3 udalerrietako Hirigintza Antolaketaren Plan Orokorrekin**, eta hala ondorioztatzen da udal bakoitzak igorritako hirigintza txostenetatik.

Azaldutako guztiagatik, honako hau ESKATZEN DUT:

Agiri hau aztertu ondoren, onartu eta, horren arabera, aurkeztutzat jo ditzala aurreko alegazioak, izapide egokiak egin ondoren, proiektuaren **Aurretiazko Administrazio Baimen** eskaera **ezetsi** dezan, interes orokorrekotzat jo ez dezan eta **Ingurumen Inpaktuaren Adierazpen** negatiboa egin dezan.

..... (e)n, 2024 koren (e) (a) n
(herria) (hilabetea) (eguna)

Sinadura